



zaraobe
institutua

72 URTE ESKUALDEAN
55 zenbakia 2024ko uztaila



Siemianowickieko (Polonia) Meritum LHko ikasleak Gernikako arbolaren gerizpean.



Amurrioko Zaraobe BHIko ikasleak Auschwitzchen (Polonia) bisitan.

**“Personak begietara begiratu behar diogu elkarri. Aurrean daukagun pertsonaren lekuan jarri behar gara”
Kirmen Uriberen hitzak gazteen aurrean emandako hitzaldian gogoeta.**

XAKEA ZARAOBEKO EGUNEROKO BIZITZAN



Idatzi honen helburua IES ZARAOBE BHI institutuan **xake** klaseekin izandako esperientzia zuekin partekatzea da. Izan ere, **2022/2023 ikasturte hasieran, HEDATZE** programaren barruan, **xake tailerrak** ematen hasi ginen arratsaldetan. Hasieratik igarri genuen xakeak ikasleen grina pizten zuela eta tailerrek arrakasta handia izan zuten, beti topera baitzeuden gelak. Horrez gain, ikasleen motibazioa eta hobetzeko gogoia ere nabari zen bai klasean bertan, bai etxean nola entrenatzen zuten ikusita. Esan genezake gure ikasle askorentzat xakea afizio bihurtu dela eta honek xake tailerren arrakastarekin zerikusia izan dezake. Klaseak beti ikaslez beteta egoten dira, gutxienez 20 ikasle edo hortik gora. Gainera, hainbat ikasle, herriko xake taldearekin harremanetan jarri dira eta ikusi dugu eskolatik kanpo ere praktikatzen dutela jarduera hau. Aurreko kurtsoko emaitza onak ikusita, 2023/2024 ikasturtean ere programarekin jarraitzea erabaki dugu eta gure asmoa hurrengo urtetara begira xake tailerrak sustatzea, baldin eta, ikasleen interesa mantentzen den.

Xake tailerrez gain, txapelketa batzuk ere antolatu izan dira institutuan bi urte hauetan zehar. **Lehenengo Zaraoberriko txapelketa 2022ko** abenduan egin genuen, **SanTomas egunean**. Parte-hartzea ikaragarria izan zen: DBH1etik 2. batxilergo arteko ikasle ugari parte hartu zuten eta oso ondo pasatu genuen guztion artean. Gainera, irabazleari txapel bat oparitu zitzaion oroigarri bezala. **Bigarren txapelketa 2023ko San Tomas eguneko** jaialdian burutu genuen eta honek ere izugarriko arrakasta izan zuen. Bigarren txapelketa honetan izen ematea Zaraoberriko ikasle guztiei zabalik zegoen: **DBH, Batxilergoa eta baita Lanbide Heziketakoak**. Parte-hartzea oso handia izan zen txapelketa honetan ere. Horrez gain, aurreko urtean Zaraoberri bigarren batxilergo bukatu zuten ikasleak ere, orain unibertsitatean daudenak, etorri ziren txapelketa ikustera. Azken honek ilusio handia egin zigun proiektuaren arduradunei eta indarra eta gogoia piztu zizkigun proiektu polit hau aurrera eramaten jarraitzeko.

Honez gain, aurretik komentatu dugun bezala, gure **ikasle batzuk Amurrioko Xake Clubarekin** ere

jarri dira kontaktuan eta honek antolatzen dituen txapelketetara ere joaten dira, ikastordutatik kanpo. Gainera, **ikasletako bat txapelketa ofizialetan ere** badabil. Guzti honek pozez eta harrotasunez betetzen gaitu. Izan ere, guretzat, irakasleontzat, ez dago gauza politagorik ikasleak motibatzea lortzen duzula ikustea baino. Bestalde, gaur egungo gizartearen eta gaztediaren egoera ikusita, askotan teknologia berrien munduan murgilduta, pozik gaude behintzat **gure ikasleetako batzuk** mundu hortatik burua atera eta xakea bezalako afizio bat aurkitu ahal izan dutelako. Honela, ordu batzuetan bada ere, teknologia berriak alde batera utzi eta **bestelako jarduera batzuetan pasatu dezakete denbora, adimena entrenatzen duten bitartean**.


Xakeak ikasleengan eragiten dituen motibazioa eta onurak ikusita, 2024/2025 ikasturterako DBH2n xakea hautazko ikasgai bezala proposatu dugu. Momentuz Eusko Jaurlaritzaren partetik ezezko erantzun bat jaso dugun arren, lanean jarraituko dugu helburu hau lortzeko. Izan ere, gaur egungo Hezkuntza Curriculumean jasotzen den bezala, eguneroko bizitzako erronkak ebazteko prestatu behar ditugu ikasleak eta, gure ustez, xakea ariketa bikaina da honetarako.

Institutuan egun baten **Radio Vitoriaren** deia jaso genuen. Gure ikastetxean xakeak duen arrakasta ikusita gurekin grabazio bat egiteko nahia erakutsi ziguten. Egun baten beraiekin gelditu ginen, ikasle zein irakasle, eta xakearekin daukagun harreman osoa kontatu genien. 40 minutuko saio hau interneten eskuragarri dago. Ikasleek oso jarrera ona erakutsi zuten honen grabazioan eta irratian parte hartzea ekintza positiboa iruditu zitzaigun.

Bukatzeko, azpimarratu nahiko genuen xake tailer hauen atzean lan eta dedikazio ugari dagoela. Hala ere, bi urte hauetako esperientzia hain positiboa izanik, gogor lanean segitzeko asmoa daukagu, IES ZARAOBE BHIko tailerrek aurrera jarrai dezaten eta urtetik urtera hobetuz joan. Espero dugu urte askotan zehar ikasle eta irakasleen arteko loturak sortzen joan daitezen afizio eder honi esker.



Radio Vitoriaren elkarrizketa



Nos complace compartir la experiencia positiva con las sesiones de ajedrez en el **IES Zaraobe BHI**. Los talleres comenzaron en el curso **2022/2023**, dentro del **programa HEDATZE**, y despertaron gran pasión y motivación entre los alumnos, llenando las aulas y extendiendo la práctica del ajedrez fuera del horario escolar. Debido al éxito, el programa ha continuado en el curso 2023/2024.

Se han organizado campeonatos de ajedrez en el instituto con alta participación y entusiasmo. Además, algunos alumnos han contactado con el **Club de Ajedrez de Amurrio** y participan en sus competiciones. Esto llena de orgullo a los profesores, especialmente en un contexto donde las nuevas tecnologías dominan la vida juvenil. Para el próximo curso, se ha propuesto el ajedrez como asignatura optativa en 2º de la ESO, aunque inicialmente la propuesta ha sido rechazada por el Gobierno Vasco, seguiremos intentándolo. La experiencia ha sido tan positiva que el equipo de profesores planea seguir promoviendo y mejorando los talleres. También, el éxito del programa atrajo la atención de **Radio Vitoria**, que realizó una grabación con alumnos y profesores, destacando **la relación del instituto con el ajedrez**.

Para terminar, nos gustaría destacar que detrás de estos talleres de ajedrez hay mucho trabajo y dedicación. Sin embargo, la experiencia de estos dos años es tan positiva que tenemos la intención de seguir trabajando duro para que los talleres de ajedrez sigan adelante y mejorando año tras año en el IES Zaraobe. Esperamos que a lo largo de muchos años se sigan creando lazos entre alumnos y profesores gracias a esta hermosa afición.

AURKIBIDEA

ZARAOBE

Xake.....2

MRR funtsak

Vienako bidaia 4

GURE PROIEKTUAK

LH Erasmusak..... 4

DBH-BATX Erasmusak.....9

Hedatze.....12

Momentuak.....14

Agenda 2030.....16

Kotxe elektrikoa18

Elikagaien bilketa.....18

Maketak19

Mosaikoak + Tekno..... 20

HNP.....21

JARDUERA OSAGARRIAK

Eureka zientzia museoa.....21

San Tomas eguna22

Korrika23

LEHIAKETAK

Literatur lehiaketa24

Ohorezko matrikulak24

JUBILAZIOAK25

ZARAObETARRAK27

BATXI PROMOZIOAK28

VIENARA BIDAIA. Trip to Vienna

Abenduko klaseetako azken astean, Mekatronikako zortzi ikasle eta bi irakasle NextGenerationEU programak finantzatuta Vienara egin genuen bidai bat. IES Zaraobe BHIK irakasgai batzuk ingelesez ikasteko aukera ematen die ikasleei, eta programa honek baliabideak eskaintzen ditu ikasleen ingeles maila hobetzeko eta eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzeko.

Bidaia honen helburua ikasleei ikasitakoa praktikatzeko aukera ematea eta ikasketekin zerikusia duten tokiko erakundeak bisitatzeaz. Ikasleen ekarpenarekin ibilbide interesgarri bat antolatu zen, hirian bisita eta esperientzia kultural bizigarriak eskaintzen zituena. Adibidez:

Vienako Zientzia eta Teknologia Museoa. Garraioa, energia eta industria bezalako gaiei buruzko erakusketa liluragarriak, alor hauetan erabiltzen diren makinaren benetako adibideak erakutsiz, horietako batzuk interaktiboak zirelarik. **Freudenauko zentral hidroelektrikoa Danubion.** Energia berdea sortzen dute hiriarentzat dauzkan 6 turbinak erabiliz.

HTL Moedling. Austriako 14 eta 19 urte bitarteko ikasleentzako lanbide-heziketako ikastetxerik handiena da, 3.500 ikasle baino gehiagorekin. Han Mekatronika zikloan egiten dituzten jarduerak ikusi ahal izan genituen. Ikastetxearekin harremanetan gaude, eta espero dugu etorkizun hurbilean truke-programa bat abiatzea ikasleak hara bidaliz.

TUWien Pilot Factory Industry 4.0. Ikerketa institutu bat da, etorkizuneko industriaren teknologiak erabiltzen dituena.

Viena bisitatzeko genuen bitartean, Eguberrietako merkatu ezberdinak bisitatu genituen, opari, oroigarri eta janari ezberdinak eskaintzen zituzten postuekin. Bereziki ederrak izan ziren arratsean, argiztapen guztia pizten zutenean. Stephansdom katedrala bisitatzeko aukera ere izan genuen, eta gustura ikusi genituen 100 haur gabon kantak abesten gaueko ekitaldi batean. Natur Historiaren Museora egindako bisita, tamaina naturaleko animalien erakusketa ikusteko, edo Karlskirche eliza bisitatzeko izan ziren Vienako kale ikusgarriak zeharkatzen genituen bitartean egin genituen beste jarduerak oso entretenigarriak.

Bidaia zoragarria izan zen, benetan gozatu genuena. Espero dezagun hurrengo urteetan ikasle gehiago ere programa honen parte izatea eta esperientzia ahaztezin bat bizitzea ikasten duten bitartean.



HTL Mödling



Technisches Museum



Zentral Hidroelektrikoa



Merkatuetan



HTL Mödling



Technisches Museum



Zentral Hidroelektrikoa



Historia Naturaleko Museoa

Two teachers accompanied eight second-year Mechatronics students on a fact-finding trip to Vienna during the last week of term. The trip was funded by the NextGenerationEU programme. IES Zaraobe BHI offers students the opportunity to study some subjects in English. This programme allows students to improve their level of English and participate in extracurricular activities.

This trip aimed to give the students the opportunity to practice what they had learned and visit local organizations related to their studies. With the students' input, we planned an exciting itinerary that provided stimulating visits and cultural experiences in the city. For example:

Vienna Museum of Science and Technology:

Fascinating exhibits on things like transport, energy, and industry, showing real examples of machines used in these fields, some of which are interactive.

Freudenau Hydroelectric Power Plant on the Danube: We went inside the building where six turbines generate green energy for the city.

HTL Moedling: This is the largest vocational college for students between 14 and 19 years old in Austria, with more than 3,500 students. We could see the various activities they do in their Mechatronics course. We are establishing a link with the college. We hope to start an exchange programme soon.

TU Wien Pilot Factory Industry 4.0: This research institute employs the technologies that will shape the future of Industry.

During our stay in Vienna, we visited several Christmas markets, where there were various stalls offering gifts, souvenirs, and food. The illumination of the market was particularly impressive when observed at night, when all the lights were switched on. We also had the chance to visit Stephansdom, a spectacular cathedral, and were delighted to hear up to 100 children's choir singing Christmas carols during an evening event. Other enjoyable activities included a visit to the Natural History Museum, which features hundreds of life-size animal exhibits, and an exploration of the impressive Karlskirche church. We enjoyed these experiences as we strolled through the unmistakable streets of Vienna.

It was a fantastic trip that we enjoyed very much. Hopefully, in the coming years, more students will be able to join this program and have an unforgettable experience while they learn.



LH ERASMUS+

Urtero bezala, Lanbide Heziketako ikasle batzuek praktikak egin dituzte atzerrian, Erasmus+ LH programari esker. Bere iritzi batzuk:

ANASS LADIOUI, PROFESIONAL BÁSICO EN CARPINTERÍA Y MUEBLE

17 urte (AREZZO, ITALIA)

“He tenido la suerte de visitar Roma, Venecia y Arezzo gracias a Zaraobe y Erasmus+. Además de esto, he aprendido a trabajar de forma autónoma y he disfrutado de la gastronomía italiana y de la convivencia con gente nueva”.



MOUAD ANACIRI, PROFESIONAL BÁSICO EN CARPINTERÍA Y MUEBLE

18 urte (AVEIRO, PORTUGAL)

“Gracias a Zaraobe y a Erasmus + he tenido la suerte de conocer Aveiro y Oporto, la Venecia portuguesa junto con dos amigas y además he aprendido a ser más autónomo”.



SALMA ARISTIZABAL, TÉCNICO EN ATENCIÓN A PERSONAS EN SITUACIÓN DE DEPENDENCIA

21 urte (LISBOA, PORTUGAL)



“La verdad es que no sabría por dónde empezar, ya que las vivencias y las oportunidades que nos han brindado han sido fascinantes. Respecto a mi experiencia en el centro de trabajo, ha sido muy buena, ya que tanto los usuarios como los trabajadores han sido muy agradables con nosotros y en todo momento hemos podido aprender cosas nuevas. He llegado a conocer sitios de Lisboa y he realizado turismo por toda la ciudad con otros compañeros. Por ello, doy gracias por lo vivido, ya que ha sido una experiencia muy bonita y se agradece de corazón”.



“Haber podido vivir algo así durante solo tres meses ha sido espectacular, ya que el tiempo ha pasado volando y creo que, si tuviese la oportunidad de volver a vivir todo lo que he vivido, lo haría sin pensarlo. Muchas gracias a toda la gente que he conocido durante este proceso de aprendizaje y también a toda la gente que ha hecho esto posible.”
Eskerrak denoi!

AHIZATU DIA MATIAS, TÉCNICO EN ATENCIÓN A PERSONAS EN SITUACIÓN DE DEPENDENCIA
21 urte (LISBOA, PORTUGAL)



“Esta experiencia con Erasmus+ me ha ayudado mucho a vivir fuera de mi país, conocer gente de muchas nacionalidades y experimentar nuevas culturas. Me ha gustado mucho Lisboa, ya que es una ciudad con muchas cosas bonitas para visitar. ¡Gracias Zaraobe y gracias Erasmus+!”

IÑAKI SANCHEZ,
TÉCNICO EN ATENCIÓN A PERSONAS
EN SITUACIÓN DE DEPENDENCIA
22 urte, (LISBOA, PORTUGAL)

“Praktikak APCL-an (Garun Paralisiko Lisboako Elkartean) gauzatu ditut, eta bertan oso gustura egon naiz. Erabiltzaileekin zein langileekin sortutako harremana oso polita izan da. Zentroan ia hogeita hamar erabiltzaile bizi dira eta beste hamabost inguru eguneko zentro bat balitz bezala erabiltzen dute.

Praktiketako esperientziaz gain, Erasmus+ proiektuan parte hartzea oso erabilgarria izan da Lisboa hiria, gertuko herriak eta Portugalen beste toki batzuk ezagutzeko. Gainera, portugesa ikasteko aukera izan dut. Hizkuntza oso erraza dirudi gaztelaniarekiko antzekotasunagatik, nahiz eta jendeak oso azkar hitz egiten duen. Hala ere, badira gaztelaniaz dakiten pertsona asko.

Pertsona asko ezagutzeko ere oso interesgarria da Erasmus proiektua, estatuto zein beste herrialdeetako pertsona asko ezagutu ditut.”



OLATZ BARROSO Y JESICA CABELLO ,TÉCNICO SUPERIOR EN INTEGRACIÓN SOCIAL
23 años, (SUOMI, FINLANDIA)



“Somos Jesica y Olatz. Hemos pasado tres meses en Finlandia realizando prácticas en Norlandia Care, una residencia para personas mayores con una metodología no convencional. Hay tres áreas diferenciadas según las necesidades de las personas usuarias: viviendas protegidas, área “convencional” y área de demencia avanzada. Aunque lo más destacable del lugar es la guardería de niños y niñas y la guardería de perros con las que se realizan diferentes terapias de ayuda para las personas residentes.



En cuanto a nuestro trabajo, hemos diseñado un programa para la mejora de las habilidades cognitivas de las personas en las viviendas protegidas, donde centramos nuestra intervención. A pesar de la barrera del idioma, las personas usuarias siempre recibieron muy bien y agradecieron las actividades realizadas, como bingo, gimnasia o paseos por el parque. Y este es el mejor recuerdo que nos llevamos de Norlandia.

Pero no todo fue trabajo... Durante la primera mitad del Erasmus convivimos con una buena capa de nieve, que nos dejó paisajes increíbles y temperaturas de hasta -10 °C. Gracias a ello, pudimos seguir tradiciones finlandesas y bañarnos en lagos helados. Durante la segunda mitad, disfrutamos del sol y conocimos otra versión del paisaje, en resumidas cuentas, las dos caras de Finlandia.

También aprovechamos para visitar países cercanos como Suecia y Estonia, e incluso hicimos una escapada a Italia. Nuestra casa estaba situada en un barrio residencial de Tuusula, a 50 minutos de Helsinki. Gracias a ello, pudimos vivir con tranquilidad y de la forma más finlandesa posible, rodeadas de animales que aparecían en el jardín, como faisanes y conejos.

¡Una experiencia espectacular!"

MBAREK AJREF, TÉCNICO EN MECANIZADO, 21 años
JON SANCHEZ, TÉCNICO EN MANTENIMIENTO ELECTROMECAÁNICO, 17 años
BECHRAYA DEDDAH, TÉCNICO EN MANTENIMIENTO ELECTROMECAÁNICO 18 años
 (BERGAMO, ITALIA)

“Lo mejor de esta experiencia ha sido poder aprender a gestionar tanto los buenos momentos como los no tan buenos.”

“He aprendido a organizarme mejor y a manejar el dinero. Los italianos nos han ayudado mucho.”

“La experiencia es sin duda, inolvidable, tanto por la gente que conocimos dentro de la empresa como fuera de ella. Nos gustó mucho Italia, un país muy turístico y hermoso, donde pudimos visitar Bérgamo y Milán. Además, nos encantó su gastronomía; comimos muy bien.”





ERASMUS ZARAOBEN

Erasmus+ proiektuaren diru laguntzei esker, Zaraobeko 14 ikaslerekin Poloniara (Katowice) eta beste 14 ikaslerekin Frantziara (Lézignan) joateko. Honez gain, bi irakasle Alemaniara (Solingen) eta beste bi Belgicara (Brujas) ere joan dira bertako hezkuntza sistemaz ikasi eta Zaraobekoa hobetzeko asmoarekin.

POLONIA (Siemianowickie):

Azpimarratzekoa izan da Poloniako familiek eta institutuak egindako harrera ona. Ikasle aldaketa honen helburu nagusia demokraziaren ingurukoa lanketa eta aldaketa kulturala izan dira.

Bertara joan aurretik, talde kooperatibo bidez ikasleek Urduñako lan esparrua, Gernikako bonbardaketa, Espainiako trantsizio demokratikoa eta demokrazia garaien inguruko aurkezpenak prestatu zituzten eta bertan aurkeztu genituen.

Honez gain, bertako eskolako egunerokoan parte hartu genuen, klaseetara joanda, eta baita Cracovia eta Auschwitz bisitatu genituen. Sekula ahaztuko ez ditugun bisitak izan ziren, batez ere bigarren aipatutakoa. Han bizi izan zen ankerkeria ez errepikatzeko museo hau zaindu eta bizitzan behin bada ere bisitatu beharra dago. Museoan handik pasatutako judu, ijito... eta nazien etsaien ile sortak, mailetak, zapatilak, literak eta abar aurkitu daitezke, baita hauetako askok bukatu zuten errausketa labeak ere.



Zaraobeko ikasleak eta irakalseak Polonian

Zaraobeko Lanbide Heziketako ikasleak 2019. urtera arte Meritum ikastetxean egon izan dira praktikaldiak egiten. Harreman hau berriro indartu dugu eta mekanizazioa ikasten dauden ikasleek praktikaldia Polonian egiteko aukera izango dute, baita hango ikasleek Aiaraldean egitekoa ere.

Poloniarrak ekainak 4-11 artean etorri dira Aiaraldera eta esku zabalik hartu ditugu institutuan zein familietan. Egun hauetan Aiaraldea ezagutzeaz gain Gernika, Gaztelugatxe, Bakioko hondartza, Bilbo eta Donosti ikusi ditugu.



Poloniako ikasleak eta irakalseak Euskal Herrian



FRANTZIA (Lézignan-Corbières):

Zaraoberen ordezkaritza Frantzian

Gure frantzeseko ikasleak mugikortasun programarekin Frantzian egonaldi bat egin dute. Lézignan-Corbièreseko institututik harrera beroa eta alaia egin zieten lehenengo momentutik. “Gure anfitrioiaren abegikortasunak eta adeitasunak etxean bezala sentiarazi gaituzte hasiera-hasieratik.” Diotenez.

Carcassonne bisitatu zuten, historiaz eta xarmaz betetako Erdi Aroko hiri hau esploratzeko aukera izan zuten. Gure ikasleek egun zirraragarria eta aberasgarria pasatu zuten, esperientzia eta ikaskuntza berriekin betea.

Frantziako ikasleekin batera lan egin dute, bi hizkuntzetan elkarrizketak sortuz eta grabatzeko praktikatzuz. Kontsumo arduragabea, eskola-jazarpena, ingurumena, herritarrak eta hondamendi naturalak bezalako gai garrantzitsuak jorratu zituzten. Ikasleen arteko lankidetzak ereduagarria izan da. Elkarri lagundu diote bi hizkuntzetan zuzen ahoskatzeko, eta horrek guztien arteko ikaskuntza indartu du.



Lézignan-Corbièrese



Carcassonne

BELGIKA (Kolonja):**Kontaktatutako ikastetxea: GO! Scholengroep Dynamiek.**

Erasmus + laguntzari esker Job shadowing egiteko aukera izan dugu. Oraingoan Belgicako Scholengruiep Dynamiek zentzura joan dira Juan eta Ibai ikastetxeko irakasleak. Mugimendu honen helburua Belgikako hezkuntza sistemari buruz gehiago jakitea da izan da.

Etorkizunerako planak egiten: Belgikako irakasleak gure zentzura eta Euskal Herria ikustera gonbidatu ditugu. Esku zabalik hartuko ditugu. Ez dugu uste ikasleak bidaliko ditugunik, beraien Erasmus+ proiektuek eta gureek ez baitute harreman askorik.

**ALEMANIA** (Solingen):**Kontaktatutako ikastetxea: Alexander Coppel Solingen**

Proiektu berritzaileak: Erasmus + laguntzari esker Job shadowing egiteko aukera izan dugu. Oraingoan Alemaniako Solingen herriko Alexander Coppel Institutura joan dira Nerea eta Ibai ikastetxeko irakasleak. Mugimendu honen helburuak Alemaniako hezkuntza sistemari buruz gehiago jakitea eta etorkizun baterako ikasleen aldaketa bat egitea izan dira.

Etorkizuneko erronka: 2024ko urrian, bertako irakasleak etorriko dira gure ikastetxea. Hemengo hezkuntza sistema eta Euskal Herria ezagutuko dituzte astebetez. 2024-2025 ikasturtean gure ikasle eta Solingeneko ikasleen artean aldaketa bat egiten saiatuko gara. Ingelesaren hobekuntza eta kultura elkarbanaketa egitea izango da aldaketa honen helburua.



HEDATZE 23-24

Harro gaude **HEDATZE 23-24** Programaren lorpenak eta jarduerak aurkezteaz, izan ere, ikasleen hazkunde pertsonala eta akademikorako funtsezkoa izan da, berdintasuna sustatuz eta gure hezkuntza-komunitatean elkarbizitza harmonikoa bultzatuz.

ESKAINZA 23-24

KIROL TAILERRAK:

Futbola, frontenisa, saskibaloia eta euskal pilota: Egoera fisikoa, talde-lana, diziplina eta etengabeko ahalegina hobetzen lagundu dute.



Frontenisa

ADIERAZPEN ARTISTIKOAK:

Akuarela: Ikasleei beren sormena esploratzeko aukera ematen die.

Gitarra: Trebetasun musikalak garatzeko espazioa bat eskaini du, ongizate emozionalari lagunduz.

ERRONKA INTELEKTUALAK:

Mate eta Xake tailerrak: Trebetasun kognitiboak, pentsamendu estrategikoa eta arazoaren ebazpena hobetzen lagundu du.



Akuarela tailerra

Nos enorgullece poder presentar los logros y actividades del **Programa HEDATZE 23-24**, que ha sido significativo en el crecimiento personal y académico de los estudiantes, promoviendo la igualdad y fomentando una convivencia armoniosa en nuestra comunidad educativa.

OFERTA 23-24

TALLERES DEPORTIVOS:

Fútbol, frontenis, baloncesto y pelota vasca:

Han ayudado a mejorar la condición física, el trabajo en equipo, la disciplina y la perseverancia.



Saskibaloia

EXPRESIONES ARTÍSTICAS:

Akuarela: Les ha permitido explorar su creatividad capturando emociones.

Guitarra: Ha ofrecido un espacio para desarrollar habilidades musicales y contribuir al bienestar emocional.

DESAFÍOS INTELECTUALES:

Mate y Ajedrez: Han ayudado a mejorar las habilidades cognitivas, el pensamiento estratégico y la resolución de problemas.



Gitarra tailerra



Xake tailerra

Ahozko komunikazio eta sormen tailerrek, ikasleen garapen integrala sustatzen saiatu dira, haien trebetasun akademiko, sozial eta emozionalak hobetuz.

Speaking tailerra: Aurreko urteetan bezala eta AMPAri esker, tailer honetan parte hartu duten ikasleek ingelesez komunikatzeko konfiantza irabazteko aukera ere izan dute.

INDARTZE AKADEMIKOA:

Hiru hiruhilekoetan eskainitako irakasgai desberdinetako 60 errefortzu baino gehiagoren laguntzarekin, ikasleek zailtasun akademikoak gainditzeko beharrezko baliabideak izango dituztela ziurtatzen saiatu gara, konfiantza eta segurtasuna sustatuz. Hori guztia, giro inklusibo eta elkarrekiko errespetuan oinarrituta, ikasle guztientzako aukerak bermatuz.



Speaking

Los talleres de Comunicación Oral y Creatividad: Han tratado de fomentar el desarrollo integral de los estudiantes, mejorando sus habilidades académicas, sociales y emocionales.

Taller de Speaking: Al igual que en años anteriores y gracias al AMPA, los alumnos participantes en este taller, no solo han tenido la posibilidad de mejorar su fluidez y pronunciación, sino que han podido ganar en confianza al comunicarse en inglés.

REFUERZO ACADÉMICO:

Con la ayuda de los más de 60 refuerzos de diferentes asignaturas ofrecidos en los 3 trimestres, hemos intentado asegurar que todos los estudiantes tengan acceso a recursos necesarios para superar dificultades académicas, promoviendo confianza y seguridad. Todo ello, fomentando un ambiente inclusivo y de respeto mutuo, asegurando oportunidades para todos los estudiantes.



Liburutegia - etxekolanen txokoa

Programa positiboki baloratu dute bai Ikuskaritzak, bai hezkuntza-komunitateak. HEDATZE 24-26 ezartzearen bidez, irakurmenaren ulermena hobetzeko estrategia berriak txertatzea espero dugu, eskola-komunitatearen behar aldakorrei erantzuteko.

Zaraobe BHI-k gonbidatzen ditu familiei, irakasleei eta ikasleei aktiboki parte hartzera eta programaren hobekuntzarako iritzia ematera, ikasle bakoitzaren hazkundera eta arrakasta bultzatuko duen hezkuntza-ingurune bat sortuz. Zaraobe BHI-ren konpromisoa hezkuntza-bikaintasunarekin islatzen da etengabeko bilakaeran eta HEDATZE Programaren egokitzapenean, ikasleei etorkizun distiratsu baterako beharrezko tresnak eta aukerak eskaintzeko.

El programa ha sido positivamente valorado, tanto por la Inspección, como por la comunidad educativa. Con la implementación de HEDATZE 24-26 esperamos incorporar nuevas estrategias de mejora de la comprensión lectora para satisfacer las necesidades cambiantes de la comunidad escolar.

El IES Zaraobe invita a toda la comunidad educativa a participar activamente y proporcionar retroalimentación para mejorar el programa, creando un entorno educativo que fomente el crecimiento y éxito de cada estudiante. El compromiso del IES Zaraobe con la excelencia educativa se intenta reflejar en la evolución y adaptación constante del Programa HEDATZE para proporcionar a los estudiantes las herramientas y oportunidades necesarias para un futuro brillante.







AGENDA 2030

2023-2024 IKASTURTEKO EKINTZAK

Eskola Agenda 2030 programaren barruan ekintza ezberdinak burutu ditugu ikastetxean. Garapen Jasangarriko Helburuen artean, bi izan dira landu direnak: 7. "Energia berriztagarriak" eta 12. "Ekoizpen eta kontsumo arduratsuak".

ARABAN ZU ZERO PROIEKTUA

12. helburua lantzeko Araban **Zu Zero** proiektuan parte hartu genuen. Gure ikasle batzuk, (**Osagarri eta 3DC**) Arrespalditzako Alday egoitzako erabiltzaile batzuekin batera hainbat gai jorratu zituzten; birziklatzea, kutsadura, elikadura-ohitura osasungarriak, kontsumo-ohiturak, etab. Horretaz aparte, adingabeek zein helduek elkarlaneko tailerrak egin zituzten baratze bertikala birziklatutako materialarekin eraikiz.



ORTU KOMUNITARIOA

Zurgintzako LH-ko ikasleek ortu komunitarioan lanean jarraitu dute, aurtien **hesia, pasarela** eta konpostera sortu dute.

Gela egonkorreko ikasleak bertan lanean ibili dira, belar txarrak kentzen, lurra lantzen eta hainbat espezie landatu dituzte.



Ortu komunitarioan : hesia - pasarela - konpostera

ESKOLARTEKO FOROA

Maiatzaren 16an Amurrioko **Reforren Eskola arteko foroan** parte hartu genuen, Aiaraldeko beste ikastetxeekin batera. DBH1 eta DBH2ko 4 Ekoordezkari egon ziren Zarabotetik



Reforren



UDAL FOROA

Maiatzaren 30an **Amurrioko Udaletxeko foroan** parte hartu genuen. Bertan ikasleek Udaltxeko Ingurumen teknikariari eta zinegotziari kurtsoan zehar egindako lana aurkeztu zioten eta hurrengo urterako hartutako konpromesuk azaldu dituzten.



Amurrioko Udaletxean

LH PROIEKTUAK: ESKUALDEKO AMANKOMUNNEKO LANA: KOTXE ELEKTRIKOA FP - PROYECTOS

EN COLABORACIÓN CON LA EMPRESA COMARCAL: COCHE ELÉCTRICO

Aurten Amurrio Bidean-ek bultzatuta eta zonaldeko enpresak lagunduta Zaraobeko tailerretan oso ekintza interesgarria aurrera eraman da. Kotxe elektriko bat muntatu eta lasterketetan parte hartu dute zonaldeko DBHko ikasleak. Argazkian kurtso bukaerako saioan daude, kotxea bertara hurbildu direnei erakusten.

Este año, impulsada por Amurrio Bidean y apoyada por la empresa de la zona, se ha llevado a cabo una acción muy interesante en los talleres de Izas-kun. Alumnos de ESO de la zona han montado un coche eléctrico y han participado en carreras. En la foto están en la sesión de fin de curso mostrando el coche a los asistentes.



ELIKAGAI BILKETA RECOGIDA DE ALIMENTOS



Zaraobe BHIko Batxilergoko 1. mailako Komunitate-Proiektua irakasgaitik elikagaiak biltzeko kanpaina bat antolatu dugu Arabako Elikagaien Bankoaren eskutik. Kanpaina apirilaren 22an hasi zen eta maiatzaren 7an amaituko zen.

Zaraobetik eskerrak eman nahi dizkizuegu egin duzuen ahaleginagatik eta zailtasunak dituzten Arabako familiekiko erakutsi duzuen sentsibilitateagatik. Guztira 109 kg elikagai eta higiene-produktu bildu dira.

Desde la asignatura Proyecto Comunitario de 1º de Bachillerato del IES Zaraobe hemos organizado una campaña de recogida de alimentos de la mano del Banco de Alimentos de Álava. La campaña comenzó el 22 de abril y finalizaría el 7 de mayo.

Desde Zaraobe, os agradecemos el esfuerzo realizado y la sensibilidad mostrada hacia las familias alavesas en dificultades. En total se han recogido 109 kg de alimentos y productos de higiene.

Batxilergoko 2. mailako Artearen Historiako ikasleak: Elizen Maketak

Alumnos de 2º de Bachillerato de Historia del Arte: Maquetas de Iglesias



Artearen Historia irakasgaiko batxilergoko bigarren mailako ikasleek proiektu bat egin dute. Proiektu horren azken produktua hainbat elizen maketak egitea izan da, birziklatutako materialekin. Horrekin batera, elizaren azalpen-panel bat egin dute, QR kodeekin, informazio nabarmenena duten audioekin. Helburua hainbat korrante artistikoren ezaugarri arkitektoniko nagusiak modu desberdinean barneratzea izan da, baita daukagun ondare artistiko eta arkitektonikoari balioa ematea ere.

Los alumnos de segundo de bachillerato de la asignatura de Historia del Arte han realizado un proyecto que tiene como producto final realizar maquetas de diferentes iglesias con materiales reciclados. Junto a ello, han elaborado un panel explicativo de la iglesia con códigos QR con audios con la información más destacada. El objetivo ha sido interiorizar, de una manera diferentes, las principales características arquitectónicas de varias corrientes artísticas, así como poner en valor el patrimonio artístico y arquitectónico con el que contamos.

Helburua hainbat korrante artistikoren ezaugarri arkitektoniko nagusiak modu desberdinean barneratzea izan da.



ZARAOBE BHiko DBH1. mailako ikasleek egindako mosaikoak. Mosaicos realizados por alumnos de 1º de la ESO del IES Zaraobe.

Erromako proiektuarekin lotuta, Zaraobeko logoaren 2 mosaiko erraldoi egin dituzte, paperezko teselak erabiliz. Institutuko sarreran ikusgai. Erabilitako materiala birziklatutako materiala da: aldizkariak, kartoiak... Ikasle eta irakasle bolondres batzuek proiektuan parte hartu dute. Beraien laguntza gabe ezinezkoa izango litzateke lan hau betetzea.

En relación con el proyecto de Roma, se han realizado dos mosaicos gigantes del logo del IES Zaraobe, utilizando teselas de papel. Estos mosaicos están expuestos en la entrada del instituto. El material utilizado es material reciclado: revistas, cartones, etc. Alumnos y profesores voluntarios han participado en el proyecto. Sin su ayuda, habría sido imposible realizar este trabajo.



TEKNO PROIEKTUAK



2023-2024ko ikasturtean, **DBH 2.** mailako ikasleek **Teknologia eta Digitalizazio** irakasgaietan bi proiektu interesgarri garatu dituzte:

Jostailu mugikorra eta konektorea.

Proiektu hauek ikasleen sormena eta trebetasun teknologikoak garatzen lagundu dute.



En el curso 2023-2024, los alumnos de 2º de ESO han desarrollado dos interesantes proyectos en la asignatura de Tecnología y Digitalización:

Juguete móvil y conector.

Estos proyectos han ayudado a desarrollar la creatividad y las habilidades tecnológicas del alumnado.

EUREKA! ZIENTZA MUSEOA

2023-24ko 1. Batxilergoko ikasleak.



Joan den Apirilaren 15ean **1. batxilergoko D eta Eko ikasleak** Donostiara joan ginen.



Donostiako **Eureka! Zientzia Museora** egingenuen bisita esperientzia ahaztezina eta entretenigarria izan zen. Erakusketa interaktiboek zientzia modu dibertigarri eta praktikoan ikasteko aukera eman ziguten baita laborategiko praktikek eta elektrizitatearen erakusketa ere.

Harrituta geratu ginen, besteak beste, elektrizitatea, ilusio optikoak eta beste hainbeste gauzekin.

Gazteak Zientzia Museoan sartzeko esperientzia ideala. Elektrizitatearen esperimentua oso harrigarria izan zen (Faradayko kaiola eta goitentsio elektrikoaren erakustaldiak).

Esperimentuak asko gustatu zitzaizkidan, horrela ikusi bainuen zelan erreakzionatzen duten substantzia ezberdinek: azidoek, basek... Gehien gustatu zitzaidan esperimentua luminolarena izan zen.

Langileen arretari eta instalazioen kalitateari esker, txango hau urteko nabarmenetakoa izan zen. Eureka! Zientzia Museoa gomendatzen diegu zientziazale gutziei.



SAN TOMAS EGUNA



Ikasturte honetan ere, Zaraobe Insitutuan San Tomas eguna ospatu genuen abenduaren 22an. Urtero bezala hainbat ekintza desberdin jorratu izan ziren. DBHko lehenengo zikloko ikasleek herri kirolak egin zituzten (sokatira, txingak, lokotxak ...), aurreko urteetan bezala. Bigarren ziklokoek, aldiz, kirol txapelketari ekin zioten frontoian (futbola, saskibaloia, esku pilota...), eta Batxilergoko zein Lanbide Hezkietako ikasleek ere parte hartu zuten futbol eta hirukoien txapelketan. Horretaz gain, aurten ere ikasle askok parte hartu zuten xake txapelketan. Era berean, eta kirol txapelketak amaituta, denok izan genuen euskal dantzak egiteko aukera ikasle eta irakasleen musikaren laguntzaz, jatekoak eta edatekoak ere izan genituen txosnan, eta amaitzeko, urtero bezala, sarien banaketa eta otarren zozketa egin zen.



23. KORRIKA

23. KORRIKA Amurriora martxoaren 22an iritsi zen. Eta institutuko ikasleak eta irakasleak harro harro Aldaiturriaga auzoan genuen kilometrora hurbilduta, ehundaka lagunek ibilbidea egiteari ekin genion. **Guztion izenean Nora Hosking eta Amets Larrinaga, DBHko 3. mailako ikasleek lekukoa eraman zuten.** Ikasle eta irakasle nahikotxok ibilbide luzea bete zuten, bertatik hasita Luiaondoraino, korrikalari trebeak eta ausartak beti ere euskararen alde.





LITERATUR LEHIAKETA 2023-2024

2023-2024 ikasturtean gure Literatur Lehiaketan XXVIII. edizioa ospatu dugu. Oso pozik gaude jaso ditugun idazki guztiengatik. Gure ikasleek mikrokontakizunak, ipuinak, haikuak eta olerkiak aurkeztu dituzte, euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez eta frantsesez.

Era berean, harro gaude sari banaketagatik, DBHko 1. mailako bi ikasleren laguntza izan dugu. ETS taldearen interpretazio musikalarekin lagundu digutelako.

Saridunak honako hauek izan dira:



GAZTELANIA

Narratiba (1.zikloa) DBH 1
IBON MARTÍNEZ LLANO "Oblut y Maricarmen"

Olerkia (1.zikloa) DBH 2.F
ASIER ALBISUA GONZÁLEZ "La Granja"

Olerkia (2.zikloa) DBH 4.G
UXUE NOGRARO ARRAZURIA
"La parte del amor que no te cuentan"

Olerkia (Batxillergoa) 1G
UNAI CORRAL LLAGUNO "Tus frías apariciones"

Narratiba (1.zikloa) DBH2.D
NAHIKARI PENA UZAL "Una caja de recuerdos"

Olerkia(1.zikloa) DBH 2.D
DOHA EZ-ZAHERY FARS "Las estrellas y el más allá"

Narratiba (2.zikloa) DBH 4.D
IRENE ALBISUA GONZÁLEZ "Inesperada tarde de verano"

Narratiba(2.zikloa) OLH ZURGINTZA
MIKELATS OTZERINJAUREGI PARRA "De boca a boca y digo porque me toca"

Narratiba (2.zikloa) DBH 3.G
ERIKA SUÁREZ RUIZ- "Caída en el olvido"

Narratiba (Batxillergoa) 1.G
EDER IRIONDO PEREIRO "Tercera realidad"

Narratiba (Batxillergoa) 2.N

INAR RODRÍGUEZ ABASCAL "El pueblo de las sombras"

Narratiba (Batxillergoa) 1.G

HODEI RAMOS LAFUENTE "Bajo el Felpudo"

EUSKARA

Narratiba (2.zikloa) DBH 3.G

ERICA SUÁREZ RUIZ "Odol atzean dagoen egia"

Narratiba (2.zikloa) DBH 4.G

IRAIDE GARCÍA BLANCO "Joan zara baina ez betirako"

Olerkia (Batxillergoa) 2.E

ZELAI OYARZABAL FERNÁNDEZ "Esnatuko balira"

Narratiba (2.zikloa)DBH 4.D

INSAF ZANNOUTI "Hitz egiten didan hildakoa"

Olerkia (Batxillergoa) 2.F

NAROA SAIZ BERDUGO "Zugandiko behar dudana"

FRANTSESA

Olerkia (2.zikloa) 4.D

INSAF ZANNOUTI "Vers l'avenir"

INGELESA

Narratiba (Batxillergoa) 2.E

EIDER URRETCHO RAMÍREZ "Unshackled"

OHOREZKO MATRIKULAK

2023-2024 ikasturtean ohorezko matrikula lortu duten ikasleak:

EIDER URRECHO RAMIREZ
ASIER BERAZA MENOYO
MARTIN ALVAREZ DE ISUSI

Zorionak eta jaraitu horrela!



JUBILAZIOAK 2023-2024



GABRIEL LOZANO

Gabriel Lozanok erretiroa hartu du aurten. Gabriel 2000an iritsi zen Zarobera, eta 2001ra arte egon zen gurekin, Elorrietara joan zen arte. Han egon zen 18 urte, Zarobera itzuli zen 2019an, eta irakaskuntzako azken urteak Mekatronikan Goi Mailako klaseak ematen eman zituen. Guztira, 5 urte Zaroobe familian.

Gabriel ez da irakasle hutsa izan; ikasle askorentzat aita bat izan da. Beti egon zen han, laguntzeko prest, esku sendo baina zuzen batez gidatuz, noizean behin errieta on bat edo beste egiten bazien ere. Baina orduan ere bagenekien haren hitz gogorren atzean bihotz handia zegoela, eta haiek hazten eta langile oso bihurtzen ikusteko irrika zintzoa.

Haren agurra pertsonaren isla ezin hobea izan zen. Une ahaztezina, emozioz, barrez eta malkoz betea. Gabrieli gure esker ona eta maitasuna adierazi nahi genion denok.

Gabriel, eskerrik asko zure denbora eta dedikazioagatik.

JUAN KARLOS HERNÁNDEZ

Otro miembro del personal no docente que se ha jubilado es Juan Karlos Hernández. Llegó al instituto en 2006, procedente del IES Laudio. Juan Karlos, aunque vive en Llodio, presume de ser un Barakaldotarra auténtico, que fue futbolista del equipo de su ciudad durante varios años. Pero por quien sufre de verdad es por el Athletic, tanto que prefiere no ver los partidos en directo para cuidar su sistema nervioso. Juan Karlos tiene un carácter fuerte, lo que le ha hecho ganar cierta fama de gruñón, pero ha sido siempre un valor seguro, siempre al pie del cañón, esa persona que llega al centro antes que nadie para que todo esté en orden desde primera hora de la mañana hasta las dos de la tarde. Juan Carlos, un abrazo desde Zaroobe y gracias por tu labor con nosotros.



KONTXI CANGAS

En octubre se jubiló también Kontxi Cangas. Su labor durante casi 30 años ha sido mantener limpias las instalaciones del centro. Su trabajo, muchas veces invisible porque se realiza cuando se vacían las aulas, cobró una importancia crucial cuando llegó la pandemia, entonces pudimos percibir en toda su extensión la importancia de la limpieza y la higiene. A Kontxi, los que llevamos cierto tiempo en Zaroobe la recordamos por su amistad con la añorada karmele Albizua. Con ella formó durante años un tándem que derrochaba energía y simpatía, tanto en el trabajo como en esas comidas de final de curso de las que formaban parte imprescindible. Kontxi, gracias por tu impagable labor durante estos años, y que sigas con esa sonrisa.



Gabriel Lozanoren agurra

Kontxi Cangasen agurra

JOSEBA IRIONDO

19(95). etik zu hemen zaude Zaraoben zuzendaria, idazkaria, ikasketa buru-orde gogoan izango zaitugun mila eta milaka ikaslek zu zarelako institutuko behin-betiko irakasle

Orain eta paper berri bat duzu hemendik kanpo zure zai(n)

bete ahal izango dituzu zuk zure desio eta nahi, eta hemen zure hutsune falta sumatuko duguna bide ederra izan dezazula Joseba Iriondo Jauna.

(Amaia Altubek jarritako bertsoak Josebaren agurrean, 2023ko azaroaren 8an)

**HELI SANCHOVERTO**

Gugatik penaz baina berarengatik pozez agur esaten diogu Heli Sanchoyertori. Helik bere lan bizitzaren azken 16 urteak Zaraoben eman ditu.

Bere lanaldia hiru alditan banatu daiteke: lehenengo urteetan aniztasun kurrikularreko irakasle bezala, bigarrenean ikasketa buru bezala, eta azken urte hauetan 3DBHko Fisika eta kimikako irakasle bezala. Guztietan eman du bere ehuneko ehuna Zaraoberen ikas komunitatearen alde, langile nekaezina izanik. Bere trebezien artean, antolakuntzarako duen dohaina azpimarratzen dugu. Horregatik zuzendariitziatik kanpo egon denean ere, jarraitu du laguntzen talde eta irakasleen ordutegien puzzlearekin, bai eta INIKA programaren arduradun bezala.

Heli agur betiko, eta zaindu ezazu etxean duzun familia zoragarri hori!



2023ko abenduaren 15ean

2024ko ekainaren 27an

ROMEO NICUSOR IFRIM



29 urte

12 urte zituela, Errumaniatik Amurriona etorri zen familiarekin bizitzera, eta Zaraoben ikasi zuen DBH eta L.Hko Mekanizazio ertaineko gradua. Ondoren, 9 urtez Meabe enpresan lanean egon eta gero, 2022ko martxoan, Amurrioko Mekanizazio enpresa sortu zuen,

Mecanizados Patro CNC. Doitasun handiko era guztietako pieza industrialak eta ingeniartzak eskatutako mekanizatze edozein pieza egiten ditu, estatu osorako. Asko lan egiten du lan handia dagoelako, baina gustura eta harro dago sortutako erronka handi honekin.

22 urte

Etxaurren Ikastolan hasi nintzen ikasten, ondoren IES Zaroibera joan nintzen, bertan DBH eta batxilergoa ikasi eta 2020an Gizarte Langintza ikasten hasi nintzen UPV-EHUn, Gasteizen, aurtan amaituz.

Nire ikasketak amaitzeko azken ikerketa lana Aiaraldeko gazteen ohitura digitalak 9 urtetik 14 urterarte izan da. Ikerketa Aiaraldeko hainbat ikastetxeen kolaborazioari esker egitea lortu dut, haien artean Zaraobe. Bestalde, formakuntzak egiten ari naiz alkoholemia eta tabakoaren inguruko mendekotasunei buruz.

NAROA BARINAGA PADURA



UXUE LUCAS URIA



21 urte

Nire formazioa Etxaurren Ikastolan hasi zen, ondoren, Zaraoben DBH eta batxilergo ikasketak burutu nituen. 2020an Erizaintzako gradua UPV-EHUn, Leioan, ikasten hasi eta aurtan amaitu dut.

Gradua amaitu eta gero, Aiaraldean erizain bezala lan egitea eskaini zidaten. Beraz, Aiaraldeko osasun-zentroetan lanean ari naiz, oso gustura.

2023-2024 PROMOZIOA



Zorionak bihotz-bihotzez!

Berriro ere, %100ek gainditu du USE-ren ohiko deialdian (Selektibitatean) Zaraobe institutuaren izenean, onena opa dizuegu etorkizuneko zuen proiektu guztietan.